



Bi eskualdeetara iritsiko da bihar Olentzero

GABONAK ▶ Ongietorria egingo diote Tolosaldeko eta Leitzaldeko herri askotan; Gabon-kanten doinuek beteko dituzte herrietako txokoak ▶ 2

GAZTELU ▶

Tasaturiko 6 etxebizitza berri


Osingoien eta Erretore etxean ▶ 7

Gaztetxeak, maila handiko kontzertuen sustatzaile

ALEGIA-IBARRA ▶

Sorkunen zuzenekoa Alegian eta Norton Klub-en aurkezpen saioa Ibarren ▶ 6, 7

HITZA / LANDER GARRO - OARSALDEKO HITZA



ANOETA ▶

Gizarte eragileen aldarriak Gabonetan

Ekintzak, bihartik hilaren 31ra ▶ 5

IRURA ▶

Gabonen harira, ekitaldi asko

Batez ere haur eta gaztetxoentzat; urtarrilaren 5a arte iraungo dute ▶ 5



Jendea hasi da joaten plaza ondoko elkartasun dendara. I. GARCIA

VILLABONA-AIZTONDO ▶

«Erantzun eskasa» izan dute presoek buruzko jardunaldiek

Elkartasun denda zabalik da Villabonan, urtarrilaren 5a arte ▶ 5

OLENTZEROREN ETORRERAK ▶

JAIONE ASTIBIA

Bihar iritsiko da Euskal Herriko herri gehienetara Olentzero, eta gutxi-asko, herri guztietan egingen diote ongietorria ikazkin maitagarriari.

Leitzaldean eta Tolosaldean ere beste hainbeste gertatuko da, eta Olentzeroren agenda lepo beteta dagoela jakin dugu HITZAN, eta herriz herri jaso ahal izan duguna eskura jarri nahi izan dugu. Horiez gain, agenda honetan ageri ez diren herrietara ere, jakin badakigu, Olentzero etortzekoa dela.

Bestalde, jakitera eman dutenez, Etxerat-ek Leitzan elkarretaratze deialdia egin du *Hator-hator neska-mutil etxera!* aldarriarekin, 18.30ean, plazan. Eta Anoetan, berri, *PNV-EA: herritarrak baztertuz ez da Anoeta eraikitzen* leloarekin 17.00etan kalejira egingen dutela iragarri dute.

Horrela, bada, festak, kantak, doinuak eta aldarriak ere leku izanen dute han eta hemen. Eta elkartasun giroa nagusituko da gure herrietan. Ea Olentzerogiro giro hori egi bihurtzen dugun. Dugun.

ADUNA

09:00. Haurrak eta gurasoak plazan elkartu eta herrian zehar ibilaldia egingen dute.
14:30. Bazkaria, Txulobin.

ALEGIA

11:00. Ikasleak kaleetan zehar abestuz abiatuko dira.
15:30. Larraitz auzotik aterata, Txintxarri abesbatzarekin, Olentzero kantari ibiliko dira.
18:30. Olentzero udaletxeko plazara joan eta opariak banatuko ditu, bertsolarien koplak entzunez.

AMEZKETA

09:00. Etxerat presoan aldeko Olentzerorekin ibiliko da. Ugarte auzoan bazkalduko dute.
15:30. Auzoko baserrietara joanen dira kantuan.
Egunean zehar. Eskolako umeak ere ibiliko dira eskean,

ANOETA

18:30. Isastitik aterako dira, Loatzo Musika Eskolako ikasleek alaiturik. Pilotalekuan, ongietorria egingen diote Udaldantza Eskolako dantzariak eta helduen abesbatzak. Ondoren, goxokien banaketa.
Gazte Asanblada, AHT Gelditu! Elkarlana, Anoetarrok Auzolanean eta Segi:
09:00. Eskea baserriz baserri Gaztetxetik abiatuta.
14:30. Kantarien bazkaria.
17:00. Kalejira.
19:00. Olentzerori eskutitz irakurtzea.
Ondoren. Trikipoteoa.

Olentzero bihar iritsiko da bi eskualdeetara

Herri guztietan ongietorriak egingen dizkiote ikazkin maitagarriari, Gabon-kantak nagusi izanez



Lizartzako eskolara Mari Domingi etorri zen, atzo. HITZA



Aresoko eskolan, Ames-atzemailea antzerkia eskaini zuten. J. ASTIBIA



Leitzako Erletan, kantak, dantzak... denetik egin zuten ere. J. ASTIBIA

ARESO

18:30. Mendian behera, Mañeneko atarira etorriko da Olentzero. Ongietorria egin eta kalejiran, Behiko plazara joanen dira. Han umeei opariak banatuko dizkie.

ASTEASU

12:00. Kiroldegira etorriko da Olentzero.

BELAUNTZA

17:00. Olentzero Kultur Etxera etorriko da, herriko haurrentzat opari banarekin.
Ondoren. Gurasoekin batera, merienda egingen dute guztiek.

BERASTEGI

09:00. Plazatik, umeekin kalejira aterako dira, Jaiotza biziduna aurretik dutela.

13:30. Plaza aldera bildu eta bazkaria egingen dute Urepeleen, edaria, gazta eta kafea Guraso Elkartearen kontura izanda.

15:00. Kalejirarekin jarraituko dute, trikitilariarekin, kantari.

ELDUAIN

14:30. Eskean aterako dira, etxex etxe.

GAZTELU

09:00. Baserriz- baserri abes- tera aterako dira.

18:00. Olentzero plazara iritsiko da opariekin, Ulitik. Umeak eta gurasoak izango ditu han zain.

HERNIALDE

09:00. Bentatik herrira igoko dira, baserriz baserri Gabon-kantak abestuz.

Ondoren. Erniobiden bazkaria.

Jarraian. Herritik gorako baserrietara joango dira.

IBARRA

18:30. Izaskun auzotik abiatuta, musikariekin kalejira.
19:00. Plazan, ongietorria.

IKAZTEGIETA

09:00. Presoen aldeko Olentzeroa abituko da, herrian barrera. Eskolako umeak ere hor ibiliko dira.

IRURA

11:30. San Migel plazan, hamaiketako abeslarientzat.
19:00. Jaiotza biziduna eta Olentzeroren etorrera, Gabon-kantak alaituta.

LARRAUL

15:00. Herritarrak plazan bilduko dira eta baserriz baserri abiatuko dira kantari.

LEITZA

Egun guztian. Herriko etxeetan atarietan jarrita egonen dira Orantzaroak.

12:00. Umeen Orantzaroa aterako da eta herrian barrera kalejirara.

18:30. Orantzaroa Gaztelunera abiatuko da menditik, txirrikan.

Ondoren. Ongietorria egingen diote bertsolariarekin, eta gero ka-

lejiran ibiliko da, txistulari eta Asketa abesbatzarekin.

LIZARTZA

18:30. Olentzerorekin, plazatik atera eta kalean ibiliko dira, gozokiak eta gaztain erreak banatuz.

ORENDAIN

09:00. 17:00-18:00ak aldera arte, gurasoak eta umeak parte-hartzaileen etxeetara abes- tera joanez ibiliko dira: duela 30 urteko koplak berreskuratu dituzte gainera, eta ohikoez gain horiek ere kantatuko dituzte. Tartean, bazkaria izanen dute.

OREXA

16:00. Herriko plazatik, herrian zehar eskera aterako dira.

TOLOSA

18:00. Montezkuetik etorriko da, San Juan kalera eta trikitilariarekin kalejira joanen dira, Berdura plazaraino.

18:05. Trianguloan, abesbatzak.

18:30. Plaza Berrian, Udaberri, bertsolariak eta txalapartariak.

18:45. Berdura plazan, Udaberrikoak, Agurra.

20:00. Plaza Zaharrean, Tolosako Musika Banda eta abesbatza.

VILLABONA

Zunbeltz elkarte.

18:00. Otsabi auzoan, txorixo festa.

18:30. Olentzerori ongietorria eta ondoren kalejira, Errebote plazaraino.

Jesusen Bihotza ikastolako Guraso Elkarte.

17:30. Zentroa eta eliza arteko plazan, Jaiotza biziduna jarriko du, 19:30ak arte.

Fleming eskola.

10:30. Arroako plazan batu eta Olentzerorekin kalejira egingen dute.

ZIZURKIL

10:10. Jesusen Bihotzako ikastolakoak elkartuko dira.

10:30. Otañe eskolakoak bilduko dira.

Ondoren. Bakoitzak bere ibilbidean, Elbarrena auzoan zehar kantari ibiliko dira

12:00. Aurrera plazan elkarrekin abestuko dute.

Ondoren. Urkamendi elkarte- an hamaiketako.

Zizurkil Goian.

09:30. San Millan eskolako ikasle eta gurasoak plazan elkartu eta Bustin bailaran ibiliko da egingen dute.

13:00. Plazan bildu eta Olentzerori ongietorria egingen diote.

Ondoren. Bazkaria haurrentzat.

PILOTA ▶

Pilota jaialdi ikusgarria Beotibarren

Hilaren 28an hiru partida izango dira; Gabonetako Torneoko bat, tartean



Pilolari profesionalak jokatuko dute Beotibarren hilaren 28an. L. M.

IRATXE ETXEBESTE

Pilota jaialdi ikusgarria izango da hilaren 28an, asteazkenarekin, Tolosako Beotibar pilotalekuan. 16:30ean hasiko dira norgehiagokak, eta hiru izango dira, zehazki, bata bestearen jarraian, bateko eta besteko pilotariak jokatuko dituztenak. Gabonetako Torneoaren baitako neurketa bat izango da horien artean.

Lehenik eta behin, bikoteka ariko dira nor baino nor Galarza Vak eta Arizmendik osatutako bikotea Chafeek eta Lascurainek osatutakoaren aurka.

Jarraian, Gabonetako Torneoaren baitako partidua jokatuko dute Gonzalezek eta Goñi III.ak Martinez de Irujoren eta Pascualen kontra.

Eta azkenik, Baleztenak eta Arroyo II.ak osatutako bikotekak jardungo du Berasaluze IX.ak eta Galarza VI.ak osatutakoaren aurka. Asteazkenean bertan jarriko dituzte hiru partiduri horiek ikusi ahal izateko txartelak salgai Beotibar pilotalekuko leihatilan. Antolatzaileek azaldu dutenaren arabera, neurketak hasi baino pixka bat lehenago zabalduko dute leihatila.

GIZARTEA ▶

EHNA Erabili Eguneko ekitaldia iragarri dute

Bai Euskal Herriari herri ekimenak EHNA Erabili Egunean Tolosaldean izango den ekitaldiaren berri eman du; gaur izango da, 19:00etan. Tolosako Eroski merkatalgunean burutuko dute EHNAren erabilera. «Inolako arazorik gabe egin ahal izango dituzte erosketak», antolatzaileen hitzetan.

ASIALDIA ▶

Aldaketak Gabonetan autobusean

Tolosako hiribusak ohi baino lehenago amaituko du bere zerbitzua Gabonetan. Hilaren 24an, hau da, bihar, eta 31n, urteko azken egunean, zehazki, azkeneko urbano zerbitzua 20:30ean aterako dela iragarri dute udal arduradunek. Ohiko leku eta orduetan izango dira bestelako zerbitzuak.

GIZARTEA ▶

Hainbat ekitaldi Bonberenean

Bonberenea bere 6. urterrena ari da ospatzen, eta askotariko ekitaldiak ari dira egiten egunotan. Gaur *6 urte eta aurrera goaz!* ekimena egingo dute. Hilaren 28an, asteazkenean, izango da hurrengoan, 22:30ean; Basque Fire Department taldeak kontzertua eskainiko du Bonberenean bertan.

GUTUN@K ▶

Hator, hator, neska-mutil etxera!

2005eko urte hau ere bukatzeaz dagoelarik, ezinbestekoa dugu azken hamabi hilabeteotan zehar gertatutakoari buruzko gogoeta egitea.

Egia da gertakizun mingarri ugari ere ekarri digula aurten-goak, bizitza ez da berdina guztiontzat, aldapsuegia suertatu baita milaka familientzat, langabezian daudentzat, euskaraz bizi nahi eta ezin dugunontzat edota kartzelan eta erbestean diren ehunka gizon eta emakumetzat, familiako norbait etxetik kanpo urrun edo betirako senide bat galdu dutenentzat oso latza eta zaila izan da urtea. Handia, itzela da benetan batzuk pairatzen duten justiziarik, askatasunarik eta elkartasunik ezaren ondorio mingarria. Hauen artean ditugu Tolosako euskal preso eta iheslari politikoak eta beraien senitartekoak, guztiak etxeko berotasunetik urrun, ez egote edo falta horren lekuko samin eta mingotsa.

Azkeneko hilabeteotan ari da suertatzen euskal presoekin helburu politiko zehatzekin egin nahi duten erabilpen politikoa. Euskal Herriak aurrera daraman prozesu politikoa oztopatu nahi dute beraien egoera txanpon gisa erabiltzen. Hau da, ez dute inongo errespeturik aspaldidanik preso eta iheslarien herriratzea erabakia duen herriarekin. Bi kolektibo hauen egoera ez dago lotuta beraien eskubideekin, ez eta gure herriarren hitzarekin ere; baizik eta praktikan, Madril eta Parisen gaur egungo interes politikoekin.

Euskal Herriak bizi duen

prozesu politikoaren alde eta prozesuan izan beharreko parte-hartzearen alde ari dira kolektibo hauek aldarrikatzen beraien aitortza eta estatus politikoa, hain zuzen ere.

Guk, Amnistiaren Aldeko Mugimendutik, Gabonetako data hauek direla-eta gurea egin nahi dugu aldarrikapen hori, eta bat egiten dugu preso eta iheslariarekin. Bide batez, antolatu ditugun ekimenetan parte hartzera gonbidatzen zaituztegu, hala nola, larunbat eguna, Olentzero eguna, [bihar] 18:45ean Triangulotik hasita egingo dugun manifestazioa; abenduaren 30ean, hileko azken ostirala izanik, Etxerat-ek deitutako kontzentrazioa; urtarrilaren 1ean, Urte Berri Egunean, Uzturrera egingo den igoerara eta urtarrilaren 7an, arratsaldeko bostetan, Bilbon izango den manifestazio nazionalera. Aipatu ere, urtero ohi den bezala, ekonomikoki lagundu nahi duten komertzioetatik pasatuko garela, eta baita Eguberrietako materiala (arropa, egutegiak...) erosi nahi dutenentzat mahaiaik jarriko ditugula hurrengo egunetan Tonto kalean: gaur, ostirala, 17:00etatik 20:00etara; abenduaren 24ean, Olentzero Eguna, 10:00etatik 14:00etara; abenduaren 30ean, ostirala, 17:00etatik 19:15era —ondoren Etxerat-ek deitutako kontzentrazioa joango gara—; abenduaren 31n 10:00etatik 14:00etara eta urtarrilaren 5ean, 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Euria egingo balu Rondilla kaleko Kutxaren azpian jarriko genuzke mahaiaik. Aldez aurretik gure eskerrak ematen dizkizuegu zuen elkartasun eta parte-hartzeagatik.

MIKEL ZABALA • TOLOSako AMNISTIAREN ALDEKO MUGIMENDUAREN IZENEAN

hitza lagunena **txokoa**

▶ HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzuzure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratuko dute; deitu 943 30 43 46 telefono zenbakira

Egin zaitetz harpidedun!

DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTAILEAK DIRA

Avalon
osagaiak
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

honekin
TOLOSA
Tel.: 943 67 22 44

kanikak
San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 945 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

SHANTI KIROAK
Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

MUGAR
Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85

LIZARRIBAR
OINETAKOAK
Arostegieta kalean
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAREN harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

MUSIKA ▶

Musika Bandaren Gabonetako kontzertua, bihar

Plaza Berrian izango da hitzordua, 12:30etik aurrera; emanaldia bi zatitan banatuko dute, zazpi piezekin

NOELIA LATABURU

Tolosako Musika Bandak Gabonetako kontzertua eskainiko du. Olentzero gure eskualdera gerturatzen den egun berberetan. Bihar, beraz, musikak protagonismoa hartuko du, 12:30etik aurrera, Plaza Berrian eguraldiak lagunduz gero. Hotzari gogoz egingo diote aurre Luis Mari Gartzia Arretxe zuzendariaren musikariek, emanaldiak irauten duen artean, bederen.

Bi zatitan banatuko dute kontzertua. Lehenengoan hiru pieza joko dituzte; bigarrenan, berriz, lau izango dira. Hauek joko dituzte, hurrenez hurren: *Euskal-festara* (euskal martxa, Jose Maria Usandizaga); *Euskeria* (Baskongaden rapsodia, Mold. Mariano S. Miguel) eta *Tomas Rekondo* (Jota, J. Ortega) lehen zatian. Azken hau, gainera, estreinakoz joko dute. Bigarren zatian, berriz: *A christams dance party* (Michael Carros); *White christmas*



Tolosako Musika Bandak urtean zehar emandako emanaldi bat. HITZA

DATUAK ▶

Gaia. Musika Bandaren kontzertua.

Eguna. Bihar.

Ordua. 12:30.

Herria. Tolosa.

Tokia. Plaza Berria.

(Iñigo Berlin); *Ator, ator* (Aragues) eta *Olentzero* (Eguberrietako zortzikoa, Mokoroa eta Beobide).

Musika eskolak, beste bat

Bada, musikak ez du etenik gurean; izan ere, Tolosako Musika Eskolako akordeoia eta abesbatzako ikasleek beste kontzertu bat eskainiko dute, Miriam Bereau eta Koltu Tarragona bikotearen zuzendaritzapean. 19:30ean emango diote hasiera emanaldiari, Musika Eskolako areto nagusian. Herriar guztiak gonbidatu nahi dituzte emanaldira.

MUSIKA ▶

Isidro Larrañaga musika eskolaren emanaldia

Gaur izango da, 20:00etatik aurrera, Usabal kiroldegian; 25 urte betetzen ditu aurten



Ekainean eginiko 25. urteurrenaren emanaldia. J. SAIZAR

N. LATABURU

Gaur, 20:00etatik aurrera, Usabal kirol eta aisialdi gune berrian, Isidro Larrañaga musika eskolako ikasleek urtero egin ohi duten Gabonetako kontzertua izango da entzungai, doan. Egitarau zabala eskainiko dute ordu eta erdiko iraupena izango duen emanaldian: Trikitixa taldeak, piano eta kitarra bakarlarriak, bateria joleak eta, noski, akordeoi orkestrak estilo ezberdinak interpretatuko dituzte. Amaitzeko, Homo Demens talde berriak bereak diren bi abesti

joko dituzte, *Austria* eta *Homo Sapiens Demens* izenburuarekin. Beñat Led, Iñigo Asensio, Iñaki Larrea eta Egoitz Ezkerra gazteek osatzen dute taldea.

Ekainean ospatu zuen Isidro Larrañagaren orkestrak bere 25. urteurrena, eta aurtengoa ere 25. urtea dute Eguerberrietako kontzertua eskaintzen. Hasiera batean, Iparragirren eskaintzen zuten emanaldia, urte batzuk beranduago Leidor aretora pasatu ziren eta aurten, berritze-lanak direla eta, Usabal izango dute topaleku.



hitza
zure marrazkia
argitaratuko du!

Nola ikusten duzu zure herria?

bidali zure marrazkia!

3 eta 12 urte arteko haurrak,

bidali zure marrazkiak HITZAko egoitzara (Araba etorbidea 5, atzea Tolosa 20400), zure izen-abizenak, adina eta marrazkiaren azalpen labur batekin). Marrazkiaren formatua: DIN A4



Parte-hartzaileen artean sariak zozketatuko ditugu. Marrazkien erakusketa egingo du urtarriean Tolosako Alde Zaharra Merkatarik Elkartek.

• BAZAR AMIANO	KORREO, 44	• SHANTI KIROLAK	RONDILLA, 11 Bis	• GORROTXATEGI GOZOTEGIA	PLAZA ZAHARRA, 7
• DAKARO	KORREO, 50	• BERMUDEZ FRUTATEGIA	RONDILLA, 19	• ARANBURU LIBURUTEGIA	SOLANA, 7
• MAITE GOXOKIAK	KORREO, 19	• MUÑAGORRI HARATEGIA	RONDILLA, 5	• OGI-BERRI	ESKOLAPIOETAKO LORATEGIAK, 1
• IRURA OKINDEGIA	KORREO, 50 (kaletartean)	• KINU	RONDILLA, 17	• OGI BERRI	NAGUSIA, 13
• ALTUNA HARATEGIA	KORREO, 44	• ALEJANDRO GOYA HARATEGIA	RONDILLA, 23	• NATURAL BODY - B. COLLADO	NAGUSIA, 25
• SUKIA HARATEGIA	KORREO, 39	• XIRIMIRI TXOKOLATEGIA	ERREMENTARI, 40	• KIMETZ	NAGUSIA, 23
• LA CASA AZUL	KORREO, 21	• INTERFILM	ERREMENTARI, 44	• GORROTXATEGI DIETETIKA	NAGUSIA, 2
• OGI ONA	KORREO, 37	• LIZARRALDE HARATEGIA	ERREMENTARI, z/g	• PIRULO'S	LEITZA z/g
• NOOR	KORREO, 16	• BILINTX LIBURUDENDA	AROSTEGIETA, z/g	• EDEL LIBURUDENDA	LEITZA z/g
• EZEIZA GOZOTEGIA	RONDILLA, 34	• ZUNBELTZ DISKAK	AROSTEGIETA, 9	• EL BACALAO GOXOKIAK	KORREO, 51 (KALETARTEAN)

ALDE ZAHARREKO MERKATARI ELKARTEA

VILLABONA-AIZTONDO ▶ PRESOK

«Erantzun eskasa» izan dute jardunaldiek

Presoen aldeko elkartasun denda zabalik da dagoeneko

IMANOL GARCIA

Aurreko astean Zizurkilen egindako preso politikoei buruzko jardunaldiek jendearen gainetik «erantzun eskasa» jaso dute, antolatzaileen hitzetan. «14-15 lagun bildu dira hitzaldi eta tailerretan», zehaztu dute.

«Informazioa zabaldu zen, baina ez da jende asko azaldu», diote. 18/98 auziaren aurkako manifestazioan 300 lagunetik gora parte hartu bazuten ere, ondoren egindako hitzaldira entzule gutxi azaldu ziren.

Antolatzaileek ere nabarmendu dute hitzaldien intere-

sa: «Bizi duten egoera garbiana azaltzeko preso batek ziegari buruz egindako marrazkiak erakutsi ziren, askotan hitzekin bakarrik ez baita nahikoa izaten».

Bestalde, dagoeneko irekita dago presoen aldeko denda, Villabonako Errebote plaza on-



Elkartasun dendan dagoeneko mugimendua somatzen da. I. GARCIA

doko lokal batean. Urtarrilaren 5a arte izango da zabalik, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Amnis-

tiaren Aldeko Mugimenduaren materialaz gain, jendeak utzita bigarren eskuko material ugari dago salgai.

IRURA ▶

Eguberrietako egitarau oparoa antolatu du Udalak

Batez ere haur eta gaztetxoei zuzenduta dago; urtarrilaren 5a arte dira ekitaldiak

ERREDAKZIOA

Irurako Udalak Eguberrietarako egitarau oparoa antolatu du, herriarekin nolabaiteko lotura duten guztiak herri-erakartzeko asmoarekin. Ekintza gehienak haur eta gaztetxoentzat dira, «beraiek direlako herria eta herriko instalakuntzak gehien erabiltzen dituztenak». Bihar, San Miguel plazan, 11:30ean, hamaiketako emango diete abesten aritu direnei; San Miguel plazan ere, 19:00ean jaiotza biziduna eta Olentzeroren etorrera Gabon-kantzez alaitua. Etzi, parrokian eta 11:00ean, Eguberri Eguneko meza nagusia. Hilaren 26an Poxpolo, Mokolo eta konpainiaren *Zirkoa* ikuskizuna, frontoian, 17:30ean. Hilaren 27an, Ikastolan eta 17:30ean, Behi Bi's taldeak *Ni arratoi txotxongilo emanaldia* eskainiko du.

Emanaldi hauez gain urtarrilaren 5a arte beste hainbat ekintza antolatu dituzte. Haur txokoa eta liburutegia zabalik izango da hilaren 26tik 30era eta urtarrilaren 2tik 4ra, 11:00etatik 13:00etara. Jaiotza lehiaketako lanak entregatzea urtarrilaren 3an, 13:30ean, egin behar da, Ikastolako ekitaldi aretoan.

ANOETA ▶ EGUERRIAK

Gizarte eragileen aldarrikapenak Gabonetan

ERREDAKZIOA

Anoetako Gazte Asanbladak, AHT Gelditu! Elkarlanak, Anoetarrok Auzolanean herri plataformak eta SEGik Gabonak «dagaruntearen, alaitasunean eta familiaren goxotasunean igarotzea» opa diete herritarrei. Urte guztian zehar present izan dituzten aldarrikapenak, baina, ezin direla ahanzi azaldu dute: «Herritarren bazterkerekin jarraitzen du PNV-EAK, atzerapauso nabarmenak emanez euskara, kultura, gazteria, ingurumena... bezalako arloetan. Ezinbestekoa da, be-

raz, herritar guztiok ordezkatuko gaituen udal batzarra osatzea, hau baita denon Anoeta eraikitze bidea. Horretarako, beste behin ere, herriari dagozkion lau eserlekuak itzultzeko exijitzen dugu, lehen pausua geratzen diren hiru zinegotzi lapurren dimisioa delarik». Gizarte eragileek gaineratu dutenez, «ezin ahanzi Gabonak lagun eta familietatik ehunka kilometrotara, lau horren iluntasunean igaroko dituzten euskal presoak. Euskal Herria bakera eramango duen prozesua abian den honetan, ezinbestekoa da presoen esta-

tus politikoa onartzea, honek ahalbideratuko baitu presoen parte-hartze zuzena prozesuan. Bestalde, legeak hala diolako eta gizalegezkoena delako, euskal presoen Euskal Herriratzea eskatzen dugu».

Aldarrikapen horiek Gabonetan ere kalean egotea beharrezkoa delakoan egitarau zabalik antolatu dute eta gaineratu: «Aurreko urtean udal ordezkariek aldetik jasan genuen probokaziorik ez errepikatzea espero dugu Gabon hauetan». Ondorengo egitaraua prestatu dute, beraz, gizarte eragileek: bihar, 09:00-

etan, baserriz baserri kantatzera aterako dira, Gaztetxetik; 14:30ean, kantarien bazkaria; 17:00etan, kalejira plazatik PNV-EA: *herritarrek baztertuz ez da Anoeta eraikitzen* lelopean; 19:00etan, Olentzerori eskutitz irakurtzea; ondoren, trikipoteoa. Hilaren 30ean, 19:30ean, presoen aldeko hileroko kontzentrazioa; 20:30ean, talo jatea Gaztetxean; eta 22:30ean, kontzertua. Hilaren 31ean, bestalde, 19:30ean, elkarretaratzea udaletxe aurrean *Estatus politikoa orain! Euskal presoak Euskal Herrira!* lelopean.

BANAKETA ENPRESA batek **banatzaileak behar ditu Donostialdean**

LAN-BALDINTZAK :

- Astean sei egun. Astartetik igandera.
- Bi aste lan, bat jai
- **Egunean 4 ordu.**
- Goizeko 04:00etatik 08:00etara.

Ezinbestekoa da autoa izatea

Astelehena, abenduaren 26an, deitu telefono honetara 943 30 43 41

ABENDUAK 31, arratsaldeko 7retan

Zirkulagile Jose Arregi plazatik Villabonako Plazara

Manifestazio ixila

AIZTONDO BAILARA

jaiateko eskubide guztien alde!!!

KIMETZ

Eguberrietako eskeintzak

% 20

Nagusia, 23 • TOLOSA • Tel.: 943 67 38 62

Poxpolo Mokolo ta konpainia PAILAZOAK

Abenduak 23

arratsaldeko 17:30etan

Usabal polikirodegian, Tolosa

(sarrerak bertan 15:30etatik aurrera salgai)

(sarrerak aurretik kultur etxean salgai)

Anima zaitetz!!!

SORKUN ▶ ABESLARIA



HITZA

«Emakumeak dira nire publikoan onenak, beroenak, hurbilenak»

Gaur 22:30etik aurrera, Sorkun abeslaria ariko da Alegiako Gaztetxean, bere azken diskoa aurkeztzen: 'Duna'

NEREA URBIZU

Alegiako Gaztetxearen 18. urteurrena ospatzen dela jakina da jada. Gauza da, aurten, bes-teen artean, Sorkunen bisita izango dela, euskal musika jor-ratzen duen emakume gutxie-netako bat. Ohore bat da Sorkun bezalako abeslari bat Alegi-koan hartzea. Bertara joago denak Sorkunen bi diskoetan entzun daitezkeen kantak ent-zungo ditu. Berarekin solase-an, Gaztetxeen egoeraz aritu da HITZA, besteak beste.

Alegiako Gaztetxea ezagutzen al duzu?

Kontzertu bat eman nuen, due-la urte batzuk, baina Kashbad taldearekin izan zen. Gaztetxea ezagutzen dut, bai.

Zer da Gaztetxe batean aurki

daitekeena, eta areto batean topatzen ez dena?

Beno, gauza asko: alde batetik, berotasuna eta hurbiltasuna dago Gaztetxe batean. Aretoak hotzagoak dira, eta jendea ez duzu horren erraz zure egiten. Nik, egia esan, nahiago dut Gaztetxean sortzen den giroa, aretoan baino.

Egian esan, Gaztetxe askotan jotzen duzu...

Bai. Orain, neguari begira beti orokorrean, leku itxiagoetan jotzen da. Nire kasuan ere ho-rrela gertatzen da. Horrez gain, esan bezala, nik nahiago ditut Gaztetxeak kontzertuak emate-ko.

Hiru urte igaro dira zure azken diskoa kaleratu zena. Zer entzungo da Alegiako Gazte-txean?

Irailan hasitako birari jarraiki, nire azken diskoa aurkeztuko dut, *Duna* izenekoa. Horrez

gain, *Onna* diskoko kantauk ere abestuko ditut. Kashbaden erreperatorioko bat ere joko dugu. Gaztetxei egindako kantua ere ez da faltako kontzertuan: *Suen eskaparatea*, hain zuzen ere.

Zein da lehen diskoaren eta bigarrenaren arteko aldea?

Agian agresibitatean dago al-derik nabariena. Lehenengo diskoa gogorragoa zen, distor-sioa ere nabariagoa zen. Hone-tan, funky kutsua agerian da, saxoa sartu dugu, baita teklatuak ere. Base elektronikoa ere kendu egin dugu. Bestela, tres-nak berdinarak dira: baxua, gita-rra, bateria, ahotsa, teklatura eta saxoa. Kolaborazioak ere badaude.

Zein da zure kontzertuetan ikus daitezkeen publikoa?

Denetik ikusten da. Adinaren arabera, 14 urteko gazteetatik hasita 40 urtekoak arte, muti-lak, neskek... Dena dela, publi-korik onena emakumeak dira nire kontzertuetan.

Nola ikusten duzu Gaztetxeen egoera gaur egun?

Gustatzen zait, jendeak lan egi-ten du, kontzertuetan jende asko ikusten da, musika kontzertuak emateko aproposak dira... Oso ondo.

iragarki laburrak ▶

SALGA!

Etxebizitza. Altzon Etxebizitza bifamiliar berria. 200 m², etxebizitza, 160m² jardina. 652 777 959.

▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Eztabaida. 2006ko urtarrilaren 1etik aurrera ezingo da lantokietan erre, eta hainbat tabernatan erretzailentzako guneak jarriko dituzte. Zer iruditzen zaizu neurri berri hori?

ALEGIA ▶



Erabilitako tresnak. N.URBIZU

Afrikako perkusio ikastaroa Kultur Etxean

Topaguneen Euskara Elkartearen eskutik izan da, 12-16 urtekoentzat

N. URBIZU

Lau egunez aritu dira Alegi-ko 12-13 urteko talde-txo bat Afrikako perkusio-ko ikastaroa hartzen, aste honetan zehar, hiru orduz arratsalde. Topaguneen Euskara Elkartearen esku-tik zabaldua izan da ikasta-ro hau, eta eskaintzari baiezkoa eman zion herri-ko Kultur Etxeak.

Honen ardura Aintzira Gorosabelek hartu du, be-rez Eibarkoa den neska baina Iruñean bizi den gi-puzkoarrak. Musikako iraka-sle da, eta perkusio afrika-rra ongi kontrolatzen du. Ikastaro honetan landu di-tuzten musika tresnak yem-be-a eta dumdukak izan dira. Dumduma tres-nak beste bi tamaina ditu eta horiek, izen ezberdina-rekin ezagutzen dira: dum-duma bera, Sangman-a er-diko soinuk sortzen ditue-na eta kenkenyak soinua agudoenak. Bost ikasleek lau tresna hauen oinarri-zko kolpeak ikasi dituzte.

Egurrez eginda dauden tresna hauek eragiten di-tuzten erritmoek Afrikako dantzetan dute oinarria. Jai eta ospakizunetan jotzen dira, Euskal Herrian fan-dangoa herriko festetan dantzatzea baillitza. Festa nahiago omen da hemen, baina ikastarora apuntatu ez denak aukera polita gal-du du.

IKAZTEGIETA ▶

Baltziskueta ipuin kontalaria Kultur Etxean

Gaur, Ikaztegieta Kultur Etxean, 16:45ean, Baltziskueta ipuin kontalariak saioa eskai-niko du. Bestalde, haurrek es-kolan Van Gogh-i buruz aritu dira, eta haren gaineko lanak nahiz marrazkiak egin dituzte, han ikusgai egongo direnez.

AMEZKETA ▶

Amezketarrak pilotan finalak jokatzekoak

Larrunarri pilotalekuan, gaur, 20:00etan, eskuz binaka kade-teen lehen mailako finaleko partidak daude: Epelde-Epel-de (Anaitasuna), Iraola-Arze-lus (Zazpi-iturri) bikotearen kontra. Gazteak, lehenengo mailan, aldiz, Telletxea-Gala-rraga (Aurrera-Saiaz) Ropon-Legarretaren (Zazpi-iturri) aur-ka ariko dira.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun zentroa: 653212

▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarralde.** Osasun etxea: 672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun zentroa: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdiak: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzion klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ DYA: 672536

▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970

▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerbitzua: 693930

Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitza autobus: 948 221015

▶ Taxis: 670420

▶ Taxis (Leitza): 608 873016

Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ Tolargi: 650016

▶ Iurramendi egoitza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

IBARRA ▶ KULTURA

Norton Klub-en aurkezpen emanaldia gaur Gaztetxean

23:00etan hasiko da emanaldia eta 5 euro ordaindu beharko dira; musikaz eta irudiez hornituriko saioa izango da

IÑIGO TERRADILLOS

Zuzeneko musikak hartuko du gaur ere Ibarako Gaztetxea. Norton Klub izango da, hain zuzen, 23:00etatik aurrera taldearen aurkezpen emanaldia eskainiko duena.

EH Sukarra taldearen sortzailearen, hau da, Mikel Gorosabel Garaien bakarkako lehen proiektua da Norton Klub. Pasa den urriaren 27an kalera zuten lehenengo lana *Kale artean* izenarekin, Gorosabel berak eta David Otaegik sortu berri duten Barne Records zigilupean. Bost abestiz osaturiko lanak Bartzelona izan du inspirazio puntu; izan ere, bertan grabatu zuten urte honetako urtarrilean, Paco Roman teknikariarekin batera. Parte hartu duten musikariak Aintzira Gorosabel eta Aitor Gorosa-

bel Garai eta Mikel Irisarri izan dira. Abestien hitzak Mikel Gorosabelek egin ditu Asier Seranoren laguntzarekin, eta musika, berriz, Mikel Gorosabelen esku joan da.

«Musikari ekiteko gune irekia» bezala deskribatzen du taldeak proiektu berri hau, bizitzan zehar barneratutako doinuaren eraginez sortutako kanporatze naturala dela azalduz. Halaber, rock-a ardatz duela baina 60. hamarkadatik gaur egunera bitarteko joera ezberdinetara hurbilduz doala gehitu dute.

Gaurko zuzenekoan, Mikel Gorosabel gitarra eta ahotsean, Mikel Irisarri baxuan, Sergio Rodrigex *Ritxi* baterian eta Aintzira Gorosabel gitarrarekin ariko dira. Emanaldia osatzeko Bideo jockey batek irudi proiektzioak nahastuko ditu.



Aurkezpen emanaldia eskainiko du gaur Norton Klub-ek. HITZA

MIKEL GOROSABEL ▶ NORTON KLUB

«Musika ezberdinak jorratu nahi ditugu rock-arekin fusionatuz»

Mikel Gorosabel eibartarra, besteak beste, EH Sukarra eta Lorelei taldeen sortzailea da. Sortu berria den Norton Klub taldearekin ari da lanean egun eta ilusio handiarekin daudela, baina umiltasunarekin, poliki-poliki ekin nahi diotela azaldu dio HITZARI.

Musikari ekiteko gune ireki bezala deskribatu duzue zuen proiektua.

Bai, eta zentzu bikoitza du horrek. Batetik, musika estilo ezberdinak jorratu nahi ditugu, eta bestetik, hainbat musikariarekin lagunduta lanak egiteko asmoa dugu.

Zer du Norton Klub-ek EH sukarratik?

Musikari bera dela, eta hori agian doinuetan-edo nabari daiteke; baina garai hartan finaturiko estiloa genuen, eta hasi berri dugun proiektu honetan, berriz, irekiagoak gara eta musika ezberdinak egiteko aukera gehiago dugu. Hala ere, eragin desberdinak baditugu ere, eta musika mota ezberdinak jorratu nahi baditugu ere, rock-arekin fusionatuz izango da, horixe baita ardatza.

Aurkezpeneko emanaldia

izango da gaur Ibarren eskainiko duzuen. Nola osatuko duzue?

Lehen diskoko bost kantez gain beste zazpi abesti berri prestatu ditugu gaurko kontzerturako. Gainera, musika entzuteaz gain, irudiez ere gozatu ahal izango da, bideo jockey bat izango baita.

Ez da Ibarren ariko zaren lehen aldia, ezta?

Ez, EH Sukarrarekin hainbatean izan naiz, eta oso harreman ona dut bertako jendearekin. Inguruko herritar guztiak gonbidatu nahi ditugu Gaztetxera.

BERASTEGI ▶

Euskadiko Selektzioaren partidarako autobusa

Urepele elkarteak antolatu du; hilaren 25a baino lehen eman beharko da izena

I. TERRADILLOS

Euskadiko futbol selektzioak Kamerungoaren aurka jokatuko du hilaren 28an San Mames futbol zelaian. Partida horretara joateko autobusa antolatzeke asmoa du Berastegiko Urepele elkarteak. Partida 20:00etan hasiko da, eta autobusa 18:00ak aldera irtengo da Berastegitik. Partidarako sarrerak hartzeko arduraz izango du ere Urepele elkarteak. Sarrerak 20 euroren bueltan ibiliko dira, eta hilaren 25a baino lehen eskuratu beharko dira Urepele edo Zelaian.

GAZTELU ▶

Tasaturiko 6 etxebizitza berri egingo dituzte

I. TERRADILLOS

Gazteluko udalerririk prezio tasatuko sei etxebizitza berri izango ditu. Osingoen eta Erretore Etxean, Diputatuen Kontseiluak Gazteluko Antolaketa Arauen Aldaketa onartu ondoren. Udalak berak sustatu du espedientea eta haren helburua prezio tasatuko sei etxebizitza eraikitzea izango da. Osingoen etxeak zuen erabilera publiko kalifikazioa aldatu eta etxegune bihurtuz.

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Abaltzisketa. Santo Tomas inguruko festa. 11:00etatik 13:00etara, herriko plazan: animaliak, bistor jatea, gazten zozketa...

Anoeta. Gabon-kanten entsegu, bihar herrian kantatzen ateratzeko. Gaur, 20:00etan, Ikastolan.

Ikaztegieta. Baltziskueta ipuin kontalaria. 16:45ean, Kultur Etxean. Ondoren, txokolatada.

Tolosa. 6 urte eta aurrera goaz ekimena, Bonberenean. 6. urteurrenean.

Tolosa. Poxpolo eta Mokolo pailazoen emanaldi berria. 17:30ean, Usabal kiroldegian.

Tolosa. 2005eko Tolosako Kirolari Onenari saria banatuko dute, 19:00etan, udaletxeko areto nagusian. Hainbat kirolari omenduko dituzte.

Villabona. Fleming ikastetxean, Arroan, 11:30ean, bistor jatea.

Zizurkil. Teodoro Hernandorena IV. Ipuin Lehiaketako sari banaketa. 17:30ean, Atxulondo kultur etxean. Ondoren, ipuin kontaketa saioa.

MUSIKA

Alegia. Sorkun eta Parental Advisori Crew, eta DJ Talo. 22:30ean hasita, Gaztetxean. 18.

urteurrenaren baitan.

Ibarra. Norton Klub. 23:00etan, Gaztetxean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Ibarra. Ugarte, M. T. Euskal Herria, 46. 943 67 32 74.
Leitza. Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.

IRRATIA

Txolarre Irratia (107.5 FM - 101.2 FM)

11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa magazina: eguraldia Joxe Landarekin, Hitzaren errepeaso, agenda, albisteak, lehiaketa, disko eskainiak...

19:00-21:00. Tolosaldeko ahotsa (errepikapena).

21:00-22:00. Zaharrak berri, Hala Bedi irratiaren saioa, Arrosa Irrati Ekoizpen Zentroaren eskutik.

22:00-23:00. Arkako show musika saioa.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

Anoeta

I. MARRAZKI LEHIAKETA ▶ Eneida Saldias Mujika 5 urteko anoetarrak ere bidali digu bere marrazkia; «Nire herria da», dio Anoetari buruzko irudiaz



ANOETA ▶

Eneida Saldias Mujika (Anoeta).

Pixkanaka-pixkanaka ari dira iristen haurren marrazkiak TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZARA. Eneida Saldias Mujika 5 urteko anoetarrarena da goian ikusten duzuen marrazki hau. «Nire herria da», dio Eneidak mimo handiz egindako marrazkiari buruz. Animatu zu ere eta bidali zure marrazkia! Opariak jasotzeko aukera izango duzu!

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Mattin eta Haritz Intxaurren (Berastegi).
 Mattinek igandean 5 urte egin zituen, eta Haritzek gaur urtebete. Zorionak eta muxu handi bat familiarren partetik.



URTE ASKOAN

Garazi Urkizar Landa.
 Gaur urtebete.
 Zorionak, txiki!



URTE ASKOAN

Maddi Otero Garmendia
 7 urte.
 Zorionak aita, ama eta Xubanen partetik.



URTE ASKOAN

Alaitz Etxarren (Berastegi). Gaur urtebete.
 Aitaboa, amaboa eta familia osoaren partetik. Muxu pila bat, poxpolin.



URTE ASKOAN

Alaitz Etxarren (Berastegi). Gaur urtebete.
 Zorionak zure anaia Urkoren eta Igoeren eta Mak koadrilaren partetik. Muxu handi bat, pitufina.

HITZA, zorion agurren
 Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, tartea, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:
HITZAren egoitzara:
 Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA
 Udaletxeko bulegoa - LEITZA
Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!